

Daniel Landart

«Instituzioek eta anitz jendek beldurra diote euskarari»

Arnasak sormena dakar eta sormenak arnasa. Hala deno, noiznahi altxa daiteke teloa.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Hautzaroko oroitzapenek bizitza osoa markatzen omen dute.

Familian zoriontsu nintzen, biziki ongi itzulikatua. Donoztiriko azken baserria zen gurea, eta eskolara zein elizara kilometro bat eta erdiko bidea genuen, baina ez ginen aspertzen. Tipi-tapa auzoko beste haurrekin juntatu eta elkarrekin egiten genuen bidea. Nik, alta, banuen beste haurrek ez zuten zerbait. Ttipitipititik eri izan naiz, biriketako ahuldura batekin sortu nintzen, eta beti ibili naiz eztulka, sukarrarekin. Luzaz egon naiz etxean gaixo, eta halakoetan, amatxi etortzen zitzaidan ondora liburu sainduak, otoitzak eta ipuinak irakurtzera. Hari esker bihurtu zait testu landuen gustu eta maitasuna. Alabaina, osasunak anitz mugatu nau, beti kasu eman behar ez izerditzeko, ez hozteko. Hori denetan da zaila, baina laborari etxe batean are nekezagoa.

Suposatzen dut zuen aitak zuk segida hartzea nahiko zuela.

Bi arreba eta hiruok ginen, eta aita nahiko zorrotza eta bortitza zen nirekin, buruan sartua baitzuen ni laborari bilakatuko nintzela segida hartzeko. Fede onez ari zen, behar bezala irakatsiko zizkidan egitekoak, behar bezala heziko ninduen, eta zorioneko izango nintzen nire bidea etxean berean trazatua bainuen. Baina nik ez nuen laborantza bereziki gustuko, eta nuen osasuna ukanez nola pasako nuen bizi guzia horretan? Azkenean, ene osasun eskasari eskerrak bihurtzen dizkiot, berak salbatu ninduelako baserrian bortxaz gelditu eta egun laborari izatetik.

Kosta zaizu aitarekiko korapilo hori askatzea?

Bai, oraintsu arte ez dut konprenitu zergatik jokutzen zuen hala nirekin. Ez ninduen esti-

matzen. Eskolan ongi aritzea bost axola zitzaion, laborari nahi ninduen. Gainera, gauzen samintzeko urte guziz lehengusu bat etortzen zitzaigun oporretara eta hark izigarriko tirria zuen laborantzarako. Haren ondoran, ni inutil bat kontsideratua nintzen. Biziki zaila da tradizioei aurre egitea, eta zailagoa, ni bezala, haize-kontra ari zarela ez dakizunean.

Abertzaletasuna ere tradizioz jaso zenuen?

Gure egunerokoan euskara hutsez ari ginen, ez bakarrik etxean, herri osoan baizik. Eskolan errieta mintzo zitzaigun frantsesez, eta mezak latinez izanagatik predikua euskaraz ematen zen. Amatrixi eta etxekoei esker, euskal kulturaren oinarriak ttipititik jaso ditut. Adibidez, gure aita hotza zen, baina egun osoa pasatzen zuen kantuz, festetako bertso saioetara ez zuen hutsik egiten, eta bera zen herriko jaiak baino lehenago Donoztiriko gazteen dantza irakaslea. Baina hori guzia naturala zen guretzat, ez genuen pentsatzen

Nortasun agiria

1946ko abenduaren 11n sortu zen Donoztirin, egun Uztaritzen bizi bada ere. 1965 eta 1985 bitartean euskal antzerkiaren animatzaile handienetakoa izan zen, aktore, zuzendari zein egile gisa, eta Antzerkilarien Biltzarra eta Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea elkarteen sorreran hartu zuen parte. 1985etik euskal kulturaren alorreko profesionala izan da, eta 1990etik 2010era Euskal Kultur Erakundeko zuzendari-ordea. Bestalde, 1979tik euskaltzain urgazle, eta *Aihen Ahula*, *Batita Handia* edo *Anaiaren azken hitzak* liburuen egilea ere bada.





euskal kultura zenik. Gu euskaraz ari ginen beti, baina frantsesak ginen. Hala nola, aitatxi Lehen Mundu Gerran lau urte eta erdiz ibili zen, aita bost urtez egona zen preso Alemanian, aitatxi bizi guzian izan da frantses banderaren eramaile eta ezindu delarik aitak hartu zuen segida. Eta hala ere, 18 urtetan ni Enbatan sartu nintzen. Orduan hasi nintzen abertzaletasunaren kontzientzia hartzen. Ordura arte abertzale hitza guretzat ez zen existitu ere egiten. Pentsa, behin amari galdegin nion “xu, ze probintzietakoa xira?” eta “ez zakiat, dakidana da ez naizela zuberotarra” eman zidan arrapostu. 12-13 urtera arte ez genekien zazpi probintziak bazirenik ere, eta aita auzokoekin Dantxarinearara joaten zelarik, Espainiara abian zen.

Eta nola egiten da hortik Enbatarako bidea?

Lehenik, 14 urterekin-edo, Baionako inprimaria batean hasi nintzen lanean, eta gure aitatxi-
ren anaia Belloc-eko frailetxean bizi zenez hara jotzen nuen. Hark zidan erran lehen aldikotz, Espainian izan zela, eta han bazirela euskaldunak, lau probintzian antolatua, Francoren aurka ari zirela, eta preseski, gizon famatu, aberats, baina biziki euskaltzalea ibiltzen zela Belloc-en: Monzon. Gerora, aita Martzel Etxehandi mintzatu zitzaidan, eta euskaraz izkiriatzen hasia nintzela kontatu nionez, Baionan berriki sortua zuten Euskal Idazkaritzaren berri eman zidan. Bertaratu, eta orduan ezagu-



tzen ez nituen hiru saltzaile atzeman nituen: Jakes Abeberry Enbataren sortzaileetakoa, eta Julen Madariaga eta Eneko Irigaray ETA-ren sorreran parte hartutakoak. Liburuen aitzakian sarri-sarri hurbiltzen nintzen bertara, Xabier Elosegui errefuxiatua ere ezagutu nuen, eta poliki-poliki euskal munduari interesatu nintzaion, 1964-1965ean Enbatan sartu arte.

Zer giro arnasten zen orduan?

Giro abertzalerik ez zen, 50 bat izango ginen anitz jota. Jakin behar da hemengo gairik handiena Aljeriako gerraren azken hatsa zela, horrek franko nahasten zuela giroa, mezak oraino latinez zirela, ez zela ez euskal irratirik ez telebistarik, eta 2.000 gazte joaten zirela urtero Parisera ofiziorik gabe ostalaritzan aritu edo neskame izatera. Hemengo zein Parisko politikarien ustez herri honen atarabide bakarra turismoa zen, eta kulturalki ez zegoen deus egituraturik. 1963an lehen aberri eguna Itsasun egin zelarik, herrietan “patronage” delako antzerkia egiten zen, orduantxe hasi ziren kantaldiak antolatzen, baina Mixel Labeguerie buru zuen Euskaltzaleen Biltzarra zen urtean behin festa erraldoia antolatzen zuen bakarra. Azkenean, Enbatari eta orduko abertzaleei esker, gauzak egituratzen hasi ginen, ideiak mahaian gaineratzen, eta euskal departamenduarena bezalako auziak eztabaidaren lehen lerrora ekartzen.

Antzerki munduan sartzerakoan, kontziente zinen kultura ideia politikoak transmititzeko tresna izan zitekeela?

Enbatako biltzarretan ohartu nintzen horretaz. Abeberry eta Davant ziren gure buru pen-
tsalariak, eta Jakesek beti erraten zigun bako-

tzak bere alorretik Euskal Herriko giderrak hartu behar genituela, egituratu behar genuela, eta egituratze horrek abertzaleen mundutik etorri behar zuela. Ni orduan hasi nintzen Mugerreko taldean antzezle gisa, eta garbi bota zidan teatro mailan talde desberdinak biltzen zituen elkarte bat muntatu behar genukeela, eta hortik jalgi zen Antzerkilarien Biltzarra, 1967an. Gure xede nagusienetakoa zen Hegoaldeko taldeekin harremanak sendotzea, baina hamar urte goitatu behar izan genituen Euskal Antzerkilarien Biltzarrea sortzeko. Uste dut egituratze hori biziki inportantea izan dela, beharrak hobeki pisatu eta bideratzen izigarri lagundu digulako.

Hori estrukturalki, eta sortzaile gisa?

Baita. Adibidez, egituratze horren pean, garbi genuen gure teatroa herri txikietatik egiazko antzokietara eraman behar genuela, eta hola osatu genuen talde desberdinetatik harturiko antzezleekin Baionako antzokian *Matala* eman zuen tropa. Ni ordura arte antzezlea nintzen, Donoztirin eman zen antzerki bat baizik ez nuen izkiriatura, baina Enbatako biltzarrei esker geroz eta kontzienteago nintzen nire nortasun eta gure problematikez, eta horregatik idatzi nuen *Bai ala Ez*. Hortik landa, zinez obra engaiatuak idatzi ditut, eta bai, dudarik gabe gure ideiak pasaraztea zen xedea.

Antzerkiaren profesionalizazioak anitz aldatu ditu gauzak?

Talde amateurrek segi behar dute, baina profesionalizazioa beharrezkoa zen. Gure teatroa beste herrialdeetakoaren parekoa izatea nahi badugu ezinbestean behar ditugu profesionalak. Euskal Teatroa gorputz bakarra da, baina bi adar ditu, plazerez denbora-pasa ari direnena, eta hortik bizi ahal izateko borrokan dabil-

**"Ene osasun eskasari eskerrak
bihurtzen dizkiot, berak salbatu
ninduelako baserrian bortxaz
gelditu eta egun laborari izatetik"**

tzanena. Beste herrialdetan hala bada, zergatik izanen da gurean bestela? Ez da ahantzi behar, alta, herri ttipi-ttipiñoa garela, eta 10 emanaldi-rekin Euskal Herri guziak ikusia duela obra bat. Gero, ez gaitezen engaina, gure muga famatuaren arazoa beti hor da. Profesionalek, keinuaren eta interpretazioaren bidez errazago gainditzen ahal dute, baina izigarriko kezka da enetzat lehenago Hegoaldeko antzerkia ikustera joaten zen Iparraldeko jendeak jada indar hori egiten ez duela ikustea. Gazteek badute mugimendu bat, baina handiagoa izan behar luke oraindik.

Harrigarriki, inprimeria utzi eta kulturaren profesional bihurtzean eten zen zure sorkuntzaren mugimendua. Zergatik?

Inprimerian nintzelarik, esku-langile nintzen, eta behar-beharrezkoa zitzaidan idazten banekiela frogatzea, errateko nituenak plaza-ratzea. 1985ean sartu nintzen profesionalki kultura munduan, Euskal Herriko Kultur Etxean lehenik, eta Euskal Kultur Erakunde-
dean ondoren, eta erran nezake lan horrek jan nauela. Uste nuen kulturaren murgilduz oraindik gehiago idazten ahalko nuela, baina ez da hala gertatu. Damu naiz, nonbait. Biziki pronta bainaiz, tenorekoa, baina gero ene sorkuntza lane-tan irregularra naiz ororen buru. 1985ean, Euskal Herriko

**"Biziki zaila da tradizioei aurre
egitea, eta zailagoa, ni bezala,
haize-kontra ari zarela ez
dakizunean"**


Kultur Etxean hasi nintzenean, anitz ikusgarri ikusi nituen, eta ene konfiantza hauspotzeko partez amildu zitzaidan. Ene lanen balioa zalantzan jartzen hasi nintzen, eta ene baitan nuen antolatze eta egituratze sen hori nagusitu zitzaidan. Horri bide eman nion, eta Euskal Herriko Kultur Etxearen esperientziak bost urte baizik iraun ez bazituen ere, biziki inportantea izan zen, ministerioen eta departamenduko ordezkarien funtzionamen-



OFF THE RECORD

Iturriko ura nola

Gehienek gabardina luze bat jantzita ezagutuko zuten Daniel. Udan zein neguan, ongi beztiturik ateratzen da etxetik gizona. Hozteari beldurra dio. Ez zen alferrik sortu bizi guzian arrastoa utzi dion biritakoa ahuldurarekin. Baina ekilea da, egiten duena gorputz eta arima egiten duten horietakoa, eta bereziki, hizlari ona. Iturriko ura nola isurtzen ditu hitzak, eskuek lagundutako intonazio egokiz. Hizkuntzaren pobretzeaz eta hizkuntzaren senaren galtzeaz hainbeste hitz egiten den garaiotan plazer hutsa da hitzei pindarrak ateratzen ikustea. Ez dauka alferrik Danielen izena, euskal antzerkiaren urrezko letretan, Piarres Larzabal eta Monzonenaren ondoan.



dua deskubritu, eta luzera begira irauteko xedez lan egiten hasi ginelako. Euskal Kultur Erakundearen sorrera etorri zen gero, eta nire sorkuntzaren etena beste lan batzuekin konpentsatu dut. Zorionez, arian-arian, gauzak aitzinatzen ikusi ditut, oraindik eskasiak baditugu ere. Gauzak aldatu dira, baina ez da sekula deus irabazia, egunerokoa baita aitzinatzea eta esparru berriak gureganatzea. Orain mende erdi hain uzkur eta herabe ginenak ez dut erranen lorios egoteko gisan garenik, baina bagoaz aitzina.

Eta euskara aitzina doa?

Egun euskaraz mintzatzea hautu bat da. Lehenago euskaraz mintzo ginen beste hizkuntzari ez genekielako. Ez dezagun ametsik egin, ez dezagun pentsatu lehenago hizkuntzari atxikiagoak ginenik. Orain, badugu ahala tipitatik bederen bi hizkuntza ikasteko, eta ingurua frantximenta izanik biziki zaila da euskaren hautua egitea. Baina nik izigarriko plazera hartzen dut euskaldun berriek duten kemena edo batzuek hizkuntzarekiko duten errailetako atxikimendua ikusten dudalarik. Ez da ahantzi behar gurea ez dela hizkuntza minorizatua, hizkuntza zapaldua baizik, eta instituzioek eta

anitz jendek euskarari beldurra diotela. Euskara da euskaldun egiten gaituena, eta beti dute euskaldun izanik frantses izango ez garen beldurra. Horregatik sartzen gaituzte denak zaku berean, horregatik gaude beti susmopean, gure buruak justifikatzera beharturik.

Erretreta hartu berritan, sorkuntzaren errota berriz martxan ezartzeko asmoz?

Orain 30 urte argitaratu nuen *Aiben Abula*, ene haur denborako eta inprimariako istorioak kontatuz. Egun, hori arraidazten ari naiz, gauza zenbait emendatuz eta beste zenbait kenduz. Aita aipatzen dudalarik, adibidez, beste begi batzuekin ikusten dut, kantuz eta dantzan, nahiz eta onartzen dudana ez ninduela estimatzen. Nire bizia aski atipikoa izan da, 14 urtetako hasi bainintzen inprimarian esku-langile, eta Euskal Kultur Erakundeko zuzendari-orde gisara hartu dut erretreta. Inprimarian lanean arituz sortu dut ene obraren zatirik handiena, eta horri esker sartu ahal izan dut kulturaren egituretan. Hori ezinezkoa zatekeen antzerkiak idazteagatik ez banintz ezaguna izan. ■

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI K ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Euskal Museoa

Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO
Tel. 94 415 5423
museoa@euskal-museoa.org • www.euskal-museoa.org